

Hernani Musika Eskolak matrikula egiteko epea zabaldu du

■ Gaurtik uztailaren 4a arte izango da matrikulatzeko aukera ■ Datorren kurtsorako ikasleak zozketaz aukeratu dira ■ Onartutako ikasleen zerrenda uztailaren 11ean argitaratuko da.

GAUR zabalduko da Hernani Musika Eskolako ikastaroetan parte hartu nahi duten ikasle berrientzat, matrikulazio epea. Uztailaren 4a arte izango da apuntatzeko aukera. Udaletxeko bigarren soilairuan goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00etara.

Musika ikasketez gain instrumentuak ikasteko aukera izango da: akordeoia, al-

boka, biolina, biolontxelo, dultzaina, gitarra, klarineta, perkusioa, pianoa, saxofoia, trikitixa, tronpeta, txalaparta eta txistua.

Plazak zozketaz

Behin ikastaroetan apuntatzeko irizpideak kontutan hartuta, ikastaroetako plazak jendeurreko zozketan erabakiko dira. Ikastaro bako-

tza bakarka hartuko da kontutan eta gaika sailkatutako zerrendak egingo dira. Zozketa uztailaren 9an izango da eguerdiko 12:00etan Musika Eskolan.

Zerrendak

Zozketa egin ondoren onartutako ikasleen behin-behineko zerrendak uztailaren 11n argitaratuko dira, Musika Eskolan

eguerdiko 12:00etan.

Amaitu berri den kurtsor honetan, 430 gazte inguru ibili dira Musika Eskolako ikastaroetan.

Musika ikasketak egiteaz gain, ikasleek gehien aukeratzten dituzten instrumentuak pianoa eta akordeoia izaten dira. Abesbatza ikastaroan ere talde handi xamarra ibili da aurtan. □

■ FUTBOLA



Jose Mari Mendizabal 'Kolonbo'.

'Kolonbo' Gipuzkoako Delegatu onena

GIPUZKOAKO Futbol Federazioak Jose Mari Mendizabal Kolonbo Gipuzkoako Delegatu onena izendatu du. Kolonbo Gorengo Taldeko Delegatua da eta urte asko daramazki CD Hernanin. Saria gaur Bergaran jasoko du, Federazioak egingo duen ekitaldian. □

■ ERRUGBIA

Euskal Herriko 7x7 torneo larunbatean Hernanin

■ 11:30etan sailkapenak eta 16:00etan finala, Landaren.

EUSKAL Herriko 7x7 Torneo larunbatean jokatu da. Goizean sailkapeneko partiduak izango dira. A taldean: Gipuzkoa, Bizkaia, Behenafarroa eta Lapurdi; B taldean, berriz, Araba, Zuberoa, Euskarians eta Nafarroa Garaia. Finala arratsaldeko 16:00etan. □

SAN JOANAK

Datorren urtera arte

AURTENGO San Joanak ere joan dira: euritan hasi eta harrira eginda bukatu. Txupinazoa igandean bota zen, baina, ostiralerako jendea hasi zen festan. Astelehenean, goizean Ansorenatarrek jaso zuten omenaldia, eta gauean preso eta errefuxiatuek. Asteartean koadrila eguna: bazkariak plaza eta soziedadeetan, eta kaleran giro ederra. Asteazkenean umeak izan ziren protagonista nagusiak. Ostegunean, herri kirolak, bertsoak eta pelotariak. Gauetan musika eta kontzertuak izan dira txoznetan eta plazan. Osiñaga, San Antonio, San Joan eta datorren astean San Ferminak Martindegin. □



Axeria eta Axeri Dantza zulora dihoaz berriz, eta Iñauterietan aterako dira berriro.

BELAZARTE ETXEA Erretegia
Pagoaga 10 -Tel: 943 33 15 69 - (Ugaldetxotik km 1era)

Arrigoain jatetxea

brintza
BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieta 15
Tel. 943 33 12 67
Faxa.: 943 33 08 92
20.120 HERNANI

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta

Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97
-Astelehen eta astearte gauetan itxia-

LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUAK, INBERTSIOAK

SANSONO Leku Hernanitik
N atsegina gertu

JATETXEA

SANSONATEGI JATETXEA
Martindegi Auzoa
Tel: 943 33 15 72 - 55 32 60

ELA SINDIKATUAK SEDE BERRIA HERNANIN



ELAko sede berriaren inaugurazioa atzo. Eskubian, Jose Elorrieta delegatuekin hizketan.

Jose Elorrieta (ELA): "Egoitza berriak zerbitzu eta erantzun sindikal haundiagoa ekarriko du"

■ Lokala publikoarentzat irekita egongo da goiz eta arratsalde ■ 943-336464.

ELA sindikatuak egoitza berria inauguratu zuen atzo Hernanin (Antziola kale hasieran, etxe berrietan). Ekitaldian ELAko delegatuak eta Jose Elorrieta Idazkari Nagusia izan ziren. Elorrietak Kronikari adierazi dionez, egoitza berriak erantzun sindikal haundiagoa ekarriko du. Egoitza berriak aurre-

koak baino azpiegitura, zerbitzu eta atentzio hobea emateko aukera izango du, ELAko buruaren esanetan.

Grebaren balorazioa

Elorrietak inaugurazioa aprobetxatu zuen Delegatuen aurrean grebaren balorazioa egiteko. ELAko Idazkari Nagusiaren us-

tez, ekainaren 19ko greba oso ondo atera zen, "nahiz eta batzuk datuak nahasten saiatu", esan zuen. Zenbaitzuen jarrerak erreflexio sakona eskatzen duela ere nabarmendu zuen.

Aurrera begira berriz, esan zuen 2003ko negoziazio kolektiboa dela hurrengo erronka nagusia. □

PELOTA



HERNANIKO Txapelteka. Asteazken arratsaldean Hernaniko gatzetxoaren arteko pelota

txapelketako finalak izan ziren, kiroldegian. Denera, kategoria ezberdinetako 10 bikotek

jokatu zituzten finalak. Hernanin pelotan fuerte segitzeko moduko harrobia dago. □

JASOTA BEZALA

EKAINAREN 28an Gay-Lesbiko Harrotasunaren Nazioarteko Egun berri bat datorkigu.

Badira urte batzuk bakoitzak bere aukera sexuala erabakitze eskubidea aldarrikatzen ari gara. Urte hauetan, orokorrean, aurrerapausoak eman dira: gizarte intolerante batetik gizarte permisibo batetara pasa gara, errespetatu eta onartzera hurbiltzen diren sektoreekin.

Hala eta guztiz ere, eguneroko bizitzan aldaketa hau ez da nabarmena. Bere homosexualitateaz ohartzen diren gazte asko bere gurasoek edo lagunek jakin dezaten eta zer esango ote denari beldur dira. Ondorioz, "ambiente" tabernetan babesten dira; gay eta lesbianen gune itxiak, bere jendearen ulemena eta maitasuna bilatuz.

Gune batzuk lortu izanak ez

du erlajatzeko balio, gauzak aldatzen ari direla pentsatzen duen gizarte batetan. Gure helburua berdintasun gizarte batetan izkutatuta gabe bizi ahal izatea baita. Arrazoi hauengatik edo beste batzuegatik, urtero Donostiako Boulevardean ospatzen den manifestaziora joateko gonbidapena luzatzen dizuegu.

Maitte Garayoa eta Mabi Aurtenetxe, ZUTIKeko kideak.

HITZ BITAN



Goian herri kirolak eta behean bertsolariak.

✓ BASERRITARREN EGUNA

Herri kirolak eta bertsolariak atzo Tiosetan. San Joan Jaien barruan urtero bezala Baserritarren Eguna izan zen atzo. Hasteko, herri kirol erakustaldia izan zen Tilosetako frontoian: harri jasotzen, aizkoran, lasto fardoa botatzen eta abar ibili ziren kirolariak. Ikusmin handia lortu zuten publikoan. Herri kirolak bukatu bezain laster, bertsolariak hasi ziren. Xebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Estitxu Eizagirre eta Maialen Lujanbio aritu ziren kantuan.

✓ SANTA BARBARA

Umeen tanborradakoek merienda bihar. Larunbat arratsaldean 17:00etan, umeen tanborradakoek merienda dute Santa Barbara elkartearen. Bestalde, umeen tanborradak astelehenean ezin izan zuen atera eguraldi txarragatik, eta datorren igandean aterako dira. Eguerdiko 12:00etatik aurrera ibiliko dira herrian barrena.

✓ ETXERAT

Kontzentrazioa gaur, 20:00etan. Etxerat elkarteak kontzentrazioa egingo du gaur presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko. Kontzentrazioa Gudarien plazan izango da. □



HERNANIKO UDALA BANDOA



Mertxe ETXEBERRIA ARANBURU, Hernaniko Alkatea, Espainiako Lege-biltzarrek ekainaren 26an onartu duen Alderdien Legea dela eta, honako hau adierazi nahi dizue herritar guztiei:

Mertxe ETXEBERRIA ARANBURU, alcaldesa de HERNANI, ante la aprobación por parte del Parlamento Español de la Ley Orgánica de Partidos Políticos, hago saber:

1-Agerian jarri behar dugu lege honen helburu nagusia Batasuna ilegalizatzea dela, eta honen ondorioz, euskal gizartearen zati garrantzitsu bat legez kanpo uztea, inolako adierazpen politikorik gabe. Aldi berean, neurri honek garbi erakusten du Espaniar estatuko indar politiko nagusiek konfrontazioaren aldeko apustua egin dutela, elkarrizketa politikoaren ordez.

1- El objetivo principal de esta Ley es ilegalizar Batasuna, y como consecuencia, dejar a una parte importante de la sociedad sin ninguna opinión política. Al mismo tiempo, esta medida deja bien a las claras que las principales fuerzas del Estado español apuestan por una política de confrontación en lugar del diálogo político como instrumento de solución de los problemas.

2 -Neurri larri hauen aurrean, Batasunako kideok hainbat ekimen garatu nahi ditugu, horien artean egun hauetan instituzioetako ohiko jardura politikoa gelditzea. Beraz, Hernaniko Udalarri dagokionez, Gobernu batzordea, Udal Osoko Bilkura eta gainontzeko ohiko jardura politiko horren adierazleak diren bilkurak ez dira egingo egun hauetan.

2-Ante esta situación, los militantes de Batasuna hemos adoptado una serie de medidas, una de las cuales es la de suspender toda actividad institucional allá donde tomamos parte. Por ello, durante estos días no se celebrarán ni la Comisión de Gobierno ni el Pleno que estaban previstos.

3- Hernaniko Udaleko Batasuna taldearen egun hauetako egiteko nagusia Lege berriaren salaketa izango da.

3- La prioridad de los/as concejales de Batasuna será la de denunciar esta ley. -

Hernanin, 2002ko ekainaren 26an
ALKATEA
Sinatua: Mertxe Etxeberria Aranburu

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶Taxiak: 943 550093
▶Udaltzaingoa: 943 333288
▶DYA: 943 464622
▶Autobusak: 943 556662
▶Anbulatorioa: 943 006666
▶Jokalari anonimokoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077
▶Gauetz: Oa
Usurbil. Poligono 1, 1
☎ 943 376076